

8. JARDUERAK

Funtsezko jarduerak dira negozi-ereduak ondo funtzionatu dezan, bezeroekiko harremanak mantentuz eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan egin beharreko jarduerak.

Ondoko hauek dira funtsezko jarduerak: produkziozko jarduerak, arazo-konponketako jarduerak eta plataformako edo sareko jarduerak. Gure kasuan, arazo-konponketa da funtsezko jarduerak. Izenak dioen bezala, arazoak konpotzeaz arduratzen gara. Honetarako beharrezkoa da ezagutzaren gestioan oinarritzeak eta etengabeko prestakuntza. Gure funtsezko jarduerak, animalien zainketa eta ongizatea da.

Jarduerari buruz hitz egitean oso garrantzitsua da kanpoko enpresen esku utzi daitezken eta utzi ezin daitezken jarduerak identifikatzea. Funtsezko jarduerak, ezin dira kanpoko enpresen esku utzi, beti enpresa barruan egin behar dira. Gure funtsezko jarduerak animalien ongizatea eta zainketa denez ezin diogu jarduerak hori beste norbaiti utzi. Gure enpresaren muina osatzen duelako eta hau babestu behar dugulako, daukagun aktiborik garrantzitsuena delako. Gure ezagutzak animalien zainketari buruz, direlako gure negozioaren arrakasta.

Aldiz, entrenamendu pistiaren muntaketa edo belardia moztearen jarduerak beste enpresa batzuei uzteko moduko jarduerak dira. Enpresak berak egiteak ez diolako balio erantsirik ematen.

Gure kasuan gorago esan bezala funtsezko jarduerak animalien ongizatea eta zainketa da. Jarduerak hori gauzatzeko albaitaritza, paseoak ematea, zaintza zerbiutza, ile-apaindegia, heziketa eta kalean baztertuta aurkitzen ditugun animaliak hartzea bete behar ditugu. Horrela, gure eskaintza garatu dugu eta bezero potentzialen gana iristi gara beraien leialtasuna lortuz eta harremana mantenduz. Modu horretan, diru-sarrerak lortzen ditugu gure negozioak aurrera jarrai dezan eta garatu dadin.